

Garrantzitsua da boto baliogabeak eta boto zuriak zenbatzea. Bien arteko ezberdintasunak honako hauek dira:

BOTO ZURIA:

- Boto-paperik gabeko gutun-azala.
- Kendu den hautagai-zerrendaren aldeko botoa.
- Senaturako hauteskundeetan hautagaia markatu gabe duten boto-paperak.

BOTO BALIOGABEA:

- Ofiziala ez den gutun-azala edo boto-papera.
- Gutun-azalik gabeko boto-papera.
- Hondatuta dauden gutun-azalak.
- Apropos eragindako aldaketak dituzten boto-paperak.
- Kongresuaren kasuan, hautagai-zerrenda ezberdineko boto-paper bat baino gehiago dituzten gutun-azalak.
- Senatuaren kasuan, esleitutako baino hautagai gehiago markatu direnean.

3. Hauteskunde dokumentazioa

Prozesu bakoitzeko dokumentazioa 3 gutun-azaletan prestatu da:

Gutun-azalak itxi eta Mahaiburuek, Mahaikideek eta Artekariak sinatuko dituzte.

1. GUTUN-AZALA

- Mahaiaren Eraketa-akta.
- Bilkura-akta
- Bilkura-aktak aipatzen dituen dokumentuak (boto-emaileen zerrenda zenbakitua, boto-paper baliogabeak edo erreklamatuak -mahaiko kideek boto-paperen atzealdean edo alde zurian sinatu beharko dituzte, eta bilkura-aktarekin batera gorde), erabilitako hauteskunde-errolaren zerrendak, errola-ziurtagiriak edota epai judizialak eta artekarien izendapenaren kopiak).
- Posta bidezko botoaren gastuak atzerritik itzultzeko eskaerak.

2. GUTUN-AZALA: Eraketa-aktaren eta Bilkura-aktaren kopiak.

Mahaiburua 1. eta 2. gutun-azalak Lehen Auzialdiko edo dagokion Bake Epaitegian entregatuko ditu.

3. GUTUN-AZALA: Eraketa-aktaren eta Bilkura-aktaren kopiak.

3. gutun-azala posta langileei emango zaie.

Deskargatu Hautesmahaietako kideentzako jarraibideen Eskuliburua:



Castellano



Català



Euskera



Galego



Valencià



Aranés



ELECCIONES
GENERALES
J U L I O
2 0 2 3

**GORTE NAGUSIETARAKO
HAUTESKUNDEAK
2023KO UZTAILAK**

**Jarraibide laburrak
Hautesmahaiak osatzen
dituztenentzat**



<https://elecciones.generales23j.es/>

1. Mahaiaren osaera

Hautesmahaia honako hauek osatuta dago:

- **Mahaiburua**, hauteslekuko agintari gorena.
- **2 mahaikide**.

Gainera, ordezkoko bi izendatuko dira Hautesmahaia osatzen duten kide bakoitzeko.

Eskubideak eta betebeharrak:

- 70 €ko dieta.
- Baimen ordaindua bozketa-egunean, laneguna bada.
- 5 orduko lanaldi murrizketa hauteskundeen ondoko egunean, besteren konturako langileentzat eta funtzionarioentzat.
- Gizarte Segurantzaren sistemaren babesa, bere jardueraren ondoriozko gertakizun eta egoerei aurre egiteko.

Hauteskunde-egunak hiru fase ditu:

- ❖ ERAKETA FASEA.
- ❖ BOZKETA FASEA.
- ❖ ZENBAKETA FASEA.

2. Hauteskunde egunaren garapena

Eraketa fasea: 08:00 – 09:00

- **Artekarien akreditazioa hautesmahaiari.** Nortasuna egiaztatuko da eta beren izendapenak emango dituzte.

Hautestontzi identifikatuak, itxiak eta prezintatuak.
Bozkatzeko kabina.
Gutun-azalak eta boto-paperak (zuriak eta sepiak).
Errolda-zerrendak.
Boto-emaileen zerrenda zenbakitua.
Eraketa-akta, 2 zenbaketa-akta eta 2 bilkura-akta.
Bozketa eta bertaratze ziurtagiriak.
Plantilla osagarria Senatuaren zenbaketarako.
Artekarien izendapenaren kopia.
3 gutun-azaleko sorta eta entregatu izanaren agiria.

- **Hauteskunde materiala egiaztatzea:**
- Hauteslekuaren **irisgarritasuna egiaztatzea.**
- Halakorik badago: **boto eskuragarriaren kita** eta eskatu duten **hautesleen zerrenda egiaztatzea.**
- **Eraketa Akta egitea**, Hautesmahaiakoek eta artekariak sinatuta.

Bozketa fasea: 09:00 – 20:00

- 1. Boto-emaileen identifikazioa**

}	NAN
	Pasaportea
	Gidabaimena
- 2. Errolda egiaztatzea.** Pertsona bat erroldan ez badago, ezin du bozkatu, kasu hauetan izan ezik:
 - Erroldan alta eman izanaren ziurtagiria.
 - Epai judiziala
 - Artekari akreditatuak, baldintza jakin batzuekin.

Botoa postaz eskatu dutenek ere ezingo dute botoa eman.

3. Botoa.

Bozketa, kasu hauetan **ETENGO DA:**

- **Boto-paperik ez dagoenean.** Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko zaio, berriak hornituko baititu. Geh. ordu bat, denbora bereko luzapenarekin.

Bozketa **BERTAN BEHERA UTZIKO DA:**

- **Bozkatzea ezinezkoa egiten duen** edozein arrazoigatik, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari kontsulta egin ondoren.

Zenbaketa fasea: 20:00etatik aurrera

Boto-zenbaketa publikoa da eta ezin da eten.

- 1. Posta bidezko botoa:** Mahaiburuak, postaz bidalitako gutun-azalak dagokion hautestontzian sartuko ditu, erroldan inskripzioaren ziurtagiria duela egiaztatu ondoren. Boto-emaileen zerrenda zenbakituan idatziko da.
- 2. Hautesmahaiako kideen eta Artekari egiaztatuen botoa.**
- 3. Hautestontzia irekitzea.** Mahaiburuak gutun-azalak aterako ditu eta, mahaikide, artekari eta ahaldunei irakurri eta erakutsiko dizkie. Zenbaketa-ordena honi jarraituko zaio:
 1. Diputatuen Kongresua.
 2. Senatua.
- 4. Gutun-azalak gordeko dira,** boto-emaileen zerredarekin egiaztatzeko.
5. Mahaiburuak **protesta edo erreklamaziorik** dagoen galdetuko du.
6. Boto-zenbaketa amaitutakoan, **boto-paperak hautsiko dira, baliogabeak eta erreklamazioaren xede direnak izan ezik.**
7. Bozketaren **emaitzak iragarriko dira.**
8. **Boto-zenbaketaren akta eta bilkura-akta** beteko dira.
9. Boto-zenbaketaren akta **ikusgai jarriko da** hauteslekuaren sarreran.